



# Martxotik maiatzera kultur agenda oparoa

Kultur saila ahalegin berezia egiten ari da herritarrek kultura kontsumitzen jarrai dezaten

Juantxi Ugarte kultura teknikaria eta Boris Nogales batzorde buruak egin zuten martxoa, apirila eta maiatzeko ekin-tzen aurkezpena Manuel Lekuona kultur-etxean. Honetan zailtasunak gaindituz, agenda oso eta anitz bat edukitzeko lanean ari direla azpimarratu nahi izan zuten.

Egoera ekonomiko zail honetan ez da erraza Lasarte-Oria bezalako udal batentzat nahi beste ikus-kizun programatzea Boris Nogalesen hitzetan. Hala ere, Kultura sailetik ahal den agenda oparoena eta anitzena osatzeko ahaleginak egiten dira herritarrek hau bazter ez dezaten. Hau da, "kultura kontsumitzen jarraitzea nahi dugu eta horregatik sarreraren prezioa merketzeko joera hartu dugu, beti ahal den neurrian edozeinek ordaindu ahal izateko". Helburu honekin, atalka aurkeztu zituzten datozen hilabeteotan Manuel Lekuonan izango diren ikuskizunak.

## Jardunaldi pedagogikoak

Haurrentzako antzerkiari dagokionez, "Aitona Matias" lana ikusiko da martxoaren 24ean. Euskaraz izango da eta Alzheimerren du ardatz. Apirilaren 21ean berriz, euskaraz ere

"Hareazko ipuina" antzerkiak hartuko du agertokia eta honetan minbizia izango da gaia.

Honekin batera ekimen berri bat gauzatuko da herriko eskoletan izan ere, lan honetako bi aktorek jardunaldi pedagogikoak burutuko dituzte umeekin gaixotasunaren ezagutzak izan ditzaten. Azkenik, maitzaren 12an lehen aldiz Lasarte-Oriako udalaren esku Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen "Zazpiko Loroa" ikuskizunaren bi saio egingo dira.

Helduentzako antzerkiari dagokionez, azpimarratzekoa da Glu-Glu taldearen "La Lechuga" lana. Honetan parte hartzen dute besteak beste, Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia aktore ezagunak.

Herriko Lan eta Lan Beti Lan taldeak ere "Las siete vidas del gato" antzezlan aurkeztuko du martxoaren 9an eta Danok Kideren eskutik



"The...Con Bertolt Brech" izango dugu taula gainean apirilaren 27an.

## Dantza, musika...

Lasarte-Oria Dantzan-en baitan "Act of God" Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarren testuetan oinarritutako dantza ikuskizun apurtzailea izango da martxoaren 16an. Azaroan berriz, Kukai taldearen "Otehi-zari Biraka" lana eta hurrei zuzendutako "Ninika" biek Erketz taldearen aholkularitzarekin ekarritakoak.

Apirilaren 14an Kukukaren 10. urteurrenaren ospakizunen baitan "Izanak dirau 1512" dantza ikuskizuna estreinatuko

du Lasarte-Orian Ibarra Alur dantza taldeak. Musikak bere tarte izango du ere eta besteak beste, KantajimJazz-en kontzertua izango da martxoaren 30ean.

Haurrentzako zinemari dagokionez, Martxoaren 4an "Malutxo" filma ikusi ahal izango da euskaraz. Martxoaren 11ean "El Gato con Botas", martxoaren 18an "El Cascanueces" eta martxoaren 25ean "Fucsia, la minibruja" filma ikusi ahal izango da. Bestetik Zine Forumaren baitan martxoaren 8 eta 11ean "La fuente de las mujeres" filma izango da ikusgai Emakumearen nazioarteko egunaren ospakizunen

harira eta martxoaren 15 eta 18an, Pedro Almodovar zuzendariaren "La piel que habito" azken filma arrakastatsua ikusi ahal izango da. Igandeko proiektzioak duela gutxi hasi badira ere, pixkanaka herritarrek hasi dira saio hauetara joaten. Juantxi Ugarteren hitzetan "nahiz eta ikusle kopurua handia ez izan, zine komertzialetan ez dauden filmak eskaintzea oso interesgarria da zine zaleentzat".

Gainera ahalegin berezia egiten ari dira kultur-etxetik azken filmak liberatzen diren neurrian haiek bota ahal izateko erosten zaharregiak ez izateko eta jendearentzat erakargarriagoak izan daitezten.

Gainontzean, Lasarte-Oriako danborradaren argazkiak jasoko dituen erakusketa jarriko da maiatzean. Bertan 300 argazki inguru izango dira ikusgai eta hortaz gain, pantaila batean beste hainbeste proiektatzen egongo dira uneoro. Hau ekainaren 4ra arte egongo da erakusketa aretoan eta kultur-etxeko kafetegian kokatuta. Ikuskizun guzti hauetarako sarrerak on line erosi ahal izango dira gaurtik aurrera.

## 3 EKOLOGIA

### Ekozinemaldiko filmak Lasarte-Orian

Lasarte-Oria Bizirik-i esker, Ekologistak Martxanek antolatzen duen 6. Ekozinemaldiko filmak ikusteko aukera izango da otsailaren 28 eta 29an, astearte eta asteazkenean, Manuel Lekuona kultur-etxean 19:30etatik aurrera.



## 5 FESTAK

### Sorgin Jainen ibilbidea finkatuta

Duela hilabete batzuk hasitako eztabaida prozesu baten ostean, aurrera begira izango diren berrikuntza eta hausnarketak plazaratu zituzten ostiral arratsaldean Xirimirin, gainera, bideo emankizun txiki bat ikusi zuten gazteek.



## 6 KIROLA

### Iñigo Ibarburu Euskadiko txapeldun

Buruntzaldea IKT-ko gazteek lehengo asteburuan, otsailaren 18 eta 19an, Euskadiko Neguko txapelketa eta Kirol Zehaztasun jardunaldia izan zituzten. Iñigo Ibarburu Euskadiko txapeldun izan zen 100 m. tximeleta proban.



# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

### ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386





## Adituak dio

## Talaiatik



## Boris Nogales:

## Kultur eskaintza

Ahotsak ez dit dardararik egiten: Lasarte-Oria Buruntzaldeko herririk inbidiatuena da. Lasarte-Oria kulturaren sinonimo da. 26 urteko historian zehar, haziz joan gara, Erketzen emanaldiekin, Albokaren kontzertuekin, Lasarte-Oria aldizkariaren kronikekin, Santa Anako parodiekin edo Sorgin-Dantzako dantzekin; eta hori dena, talde asko aipatzeke utzi ditudalarik.

Garaiak aldatzen ari dira. Teknologiaren aroan bizi gara, eta gaur egun sarrera-txartelak Internet bidez -www.lasarteoriasarean.eu- saltzen eta zozkatzen ditugu, eta agendaren berri sare sozialen bidez -Facebook eta Twitter- ematen dugu. Hala ere, oraindik ere ikusten dugu nola Musika-Eskolak urtetik urtera talentu handiak deskubritzen dituen, eta nola Kukukak bere dantza eta antzerkiak prestatzen dituen ikasturte-bukaerarako.

Bien bitartean, Manuel Lekuona, datak finkatzen jarraitzen dugu antzerki profesionalerako, zinemarako edota Semblante edo Extremeña elkarten aste kulturalerako proposamenetarako.

Egia da errealitateak ez digula ahalbidetzen antzoki handien moduko ikuskizun-programarik izatea, baina online sarreraren prezioak beharrezkoaren alde ari gara, kultura patrika guztientzako modukoa izan dadin.

Horrela, lanean jarraituko dugu auditorioa bete dadin, urtarilaren 14an Zero Setteren XXV. urteurrenean emandako ikuskizunaren modukoekin: guretarrekin, etxekoekin. Lasarte-Oriakoekin.

## Krisia eta kultura

Kultura hartu nahi izan dugu ale honetan hizpide izan ere portadan jaso dugun moduan, kultur agenda berria aurkeztu zuten ostegunean batzorde buru den Boris Nogalesek eta Juantxi Ugarte teknikariak.

Berriz ere egoera ekonomiko zaila aipatu zuten oztopo nagusi, krisiak eragina izan duela alegia, kultur-etxearen programazioa osatzeko orduan. Dagoen diruarekin ahalik eta egitarau zabalena eta onena egiten saiatu direla azpimarratu zuten. Haur zein helduentzako ekintzak finkatu dituzte martxoan, apirila eta maiatzarako eta horrekin batera, euskarazko antzerki, film eta ikuskizunei lekua egin nahi izan zaie bereziki. Euskaraz sortzen den horri tartea egitea beharrezkoa delako.

Bereziki deigarria izan daiteke askorentzat baina lehen aldiz

Euskal Herri osoan arrakasta izan duten herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak ekarriko ditu Manuel Lekuonara Lasarte-Oriako udalak. Bai, lehenengo aldia da udalaren eskaera tarteko bertan izango direla. Maiatzaren 12an izango da hori eta "ZazpikoLoroa" azken ikuskizunaren bi saio eskainiko dituzte.

Herrian bada musika, dantza, antzerkiaren inguruan mugitzen diren taldeak eta hauek dira honen bultzatzaile eta horrela jarraitzea nahi dute Kultura sailetik. Hauei esker ekintza ugari egongo da Manuel Lekuonan urte osoan zehar eta eskertzekoa da lana.

Oztopoak oztopo, bizirik dagoen kultur-etxea behar da eta horretarako kultura gure herrian kontsumitzeko joera landu. Astebururako plana egiterako orduan lehenengo gauza izan dadila Manuel Lekuonako egitaraua begiratzea.

## Hitz eta pitz

## Zer iruditzen zaizu kultur-etxeko eskaintza?



## Lorena Garcia

Lehen baino gauza gehiago daude: zinema adibidez,... Liburutegira, Kukukarekin dantza garaikidea egitera eta ikuskizunetara etortzen naiz. Antzerki eta dantza gehiago eskatuko nuke, hilean behin dantza talde bat, horrelakoetara jende asko etortzen da eta. Kukukaren antzerki astea ere oso ondo dago, jende askok parte hartzen duelako, bai ikusten, bai antzelanetan.



## Iñigo Bobillo

Kultur-etxearen programazioan berrikuntzak nabaritu ditut, ekitaldi gehiago dago, kultur mailan hobetu egin da eskaintza, nire ustez. Jakin dut, orain musika kultur-etxetik aldatu egin dutela, eta niri interesgarria iruditzen zitzaidan, musika eskaintzak egon behar du, hemen edo beste lekuren batean, juxtu, normalean eskaintzen denetik desberdina delako.



## Aroa Lopez eta Lide Ruiz

Batzutan etortzen gara, baina lehen baino gutxiago. Zinemara etortzen ginen eta orain antzerkiera gehiago zinemara baino. Herriko taldeen dantza eta antzerkiak ikustera, batez ere, lagunak aritzen direlako. Guk ere egiten dugu. Kanpoko taldeak etortzen direnean, batzuetan joaten gara ikustera, baina herrikoak nahia go ditugu, gehiago jarri beharko lirarteke.



## Mariano Martinez

Oso gutxi zapaltzen dut kultur-etxea. Musika ikasten zuten bilobekin etortzen nintzen, emanaldiren bat egin dutenean ere bai. Bilobak handi ez egitea gustatuko litzaidake, handi egiten direnean utzi egiten baitute eta beraiek ez badoaz ni ere ez. Bestela, ondo legoke politika gaien eztabaida: politikoak adarra jotzen ari zaizkigu eta, oro har, bizimoduaz gure iritzia emateko.

## Iruditan



Tedoso zinea 1989an. Argazkia Lasarte-Oria aldizkaritik aterata.

## Tedoso zinea desagertu zela 19 urte

Herriko bizilagun askok oraindik gogoratuko dute egun Manuel Lekuona kultur-etxean dagoen lekuan zegoen Tedoso zinea. Bertan sortu zen esaterako 1986an Okendo zinema taldea.

50. hamarakadarekin aldaketa handiak izan ziren Lasarte-Orian. Lan eskaintza handia zela eta, bizilagun berri asko iritsi zen lantokietara lan egitera. Gorakada eta suspertze ekonomikoa ezagutu zuen berriro herriak eta horrekin batera modernizazioa deitu zitzaiona iritsi zen. Etxebizitza asko eraiki zen eta honen ondorioz, kale antolamenduari arreta jarri zitzaion lehen aldiz. Suspertze une hartan sortu zen besteak beste Tedoso zinea beste hainbat lantegi handi ondoan zituela. Urte askotan herritarren aisialdirako txokoa izan zena 1993ko otsailan Manuel Lekuona kultur-etxeak ordezkartu zuen askoren gogoan utziz bertan ikusitako film eta bizitako esperientziak. Horrekin batera inguruko beste lantegiak bota eta etxe berriei egin zitzairen tokia.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea




**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

## ZINEMA



Munduko hainbat tokitan ingurumenaren aurka egiten diren erasoak jorratzen dituzte Ekozinemaldiko filmeek.

## Ekozinemaldia Lasarte-Orian

Ingurugiroari buruzko lau film eskainiko dira astearte eta asteazkenean 19:30ean kultur etxean

**Munduko hainbat tokitako ingurumen afera ezberdinei buruzko filmeekin osatzen dute ekologistak martxan taldeko kideek Ekozinemaldia. Aurten seigarren aldiz iritsiko da kultur etxera Lasarte-Oria Bizirik-en laguntzarekin eta urte meategi, goi-tentsioko argi-endar linea, gasa eramateko hodi edo edateko uraren inguruan sortutako arazoak ezagutu ahal izango dira astearte eta asteazkenean kultur etxean 19:30ean dohainik.**

Asteartean hasiko da Ekozinemaldia, bi dokumentalekin, Guatemalako Alvaro Revenga zuzendariak 2011n egindako "El oro o la vida" 57 minutuko dokumentalean urte meategiek Ertamerikan sortzen dituen kutsadura, gaixotasun, heriotza eta arazo sozialak jorratzen ditu. Ondoren 2011n Javier Collado Reigadas eta Ales Payas Felis kataluniarrek zuzendutako ia ordu

erdiko "MAT (Oso goi-tentsio), aurrerapenak nora garamatza?" dokumentala emango da, Zentral Nuklearretako soberakina banatzeko Europa Hegoaldea eta Afrika iparraldea zeharkatutako duen Goi-tentsioko lineari buruzkoa.

Asteazkenean beste bi pelikula eskainiko dira: luzea, Ristead O'Domhnaill irlandarrak 2010ean zuzendutako "The pipe" (Hodia) 83 minutuko dokumentalean, gas natu-

rala erateko hodi bat jartzeak Irlandako herri txiki bat nola aztoratzen duen ikusiko da. Bigarrenean, "beste mundu bat posible da: amona kilerra" 13 minutuko laburrean uraren merkaturatzearen aurkako indigenen borroka kontatzen da marrazki bizidunen bidez. Danimarkako The Animation Workshop, eta Boliviako Animatzaile Komunitateak iaz egindakoa da.

Antolatzaileek adierazi dutenez, ez zuten uste hasi zirenean seigarren Ekozinemaldira iritsiko zirenik, baina argi dute egoerak okerrera egin duela eta horrelako egitasmoak gerora "ezinbestekoak" izango direla "gertatzen dena ezagutzeko". Beraien iritziz, egoera "inoiz baino larriagoa da, ereduaren porrota. Ez da soilik krisi ekonomiko, baliabideena ere bai".

## Rosat eta Ruti hirukotea komentuan

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen saio berria izango da martxoaren 1ean, ostira-lean, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan.

Hiru herrikide izango dira bertan, Carlos Rosat eta Ruti aita-semeak.

Flauta, biolin eta fagot hirukotea osatuko dute eta lau lan eskainiko dizkiete komentura hurbiltzen diren herritarrei.

Batetik, XVIII. mendeko Europa erdialdeko Haydn, Beethoven eta Stamitz musikagileen lanak.

Eta bestetik, XVIII.-XIX. mendeetan bizi izan zen Devienne musikari frantsesaren Aria bat.



Rosat eta Rutiren hirukotea aurreko kontzertu batean.

### Urpeko zinema

Bestalde, gaur Danok Kidek Lasarte-Oriako Udala eta Real Sociedad taldeko urpeko sailaren laguntzaz antolatu duen Urpeko zinema zikloaren

azken saioa izango da, 19:00etatik aurrera.

Honetan marrazo zuriari buruzko dokumentala eta Indonesiako urazpiko espezieen aniztasuna ikusiko dira.

## INGURUMENA

### Zuhaitzaren eguna ospatuko da

Lasarte Oriako Udaletxeak datorren otsailaren 28an eta 29an Zuhaitzaren eguna ospatuko du.

Ospakizun honetarako Goiegiko parkean zuhaitzen landaketak antolatu dira. Otsailaren 28an ikastetxeen txanda izango da eta otsailaren 29an, berriz, helduei irekia dago ekintza.

Udalak lasarteoriatar guztiak gonbidatu nahi ditu gure mendien basoberritze eta zainketa parte hartzera.

Landareen ezagutzari eta zainketa buruz informatzeko udaleko monitore batek parte hartuko du.

Landaketetan parte hartzeko asmoa duten herritarrek, aurretik izen eman behar dute kontsumitzaileen informazio udal bulegoan. Honetarako Osasun zentroko eraikineko 2. solairura hurbildu edo 934 36 16 05 telefonora deitu behar dute.

## FAMILIA

### Berdintasuna zer den ikasten

"Berdintasunean hezteak zer dakarkit eta nola egin dezaket" tailerraren lehengo saioa burutuko zen lehengo ostegunean Emakumeen Zentro zibikoan.

Saioa hurbildu ziren emakumeen hausnarketarako tarte izan zuten. Harremanak aztertu eta emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitzan egon daitezkeen desberdintasunei buruz ere jardun ziren.

Lasarte-Oriako Udala eta Emakumeen Zentro Zibikoaren lan-kidetzarekin, AGIPASE elkarteak bi saio gehiago eskainiko ditu martxoaren 1ean eta 8an, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi dituzte tailer honetan parte hartzera.



## EUSKARA

### Udaltop-en data aldatzea

Martxoaren 29an greba orokorrera deitu dute hainbat sindikatuek eta horregatik, Udaltop Euskara Zerbitzuen Topaketako antolatzaileek ezarritako data aldatzea erabaki dute.

"Greba egunak bat egiten du Udaltopen IV. Topaketa egingo zen egunekin, martxoaren 29 eta 30ekin hain zuzen ere. Greba deialdiaren berri izan dugunean, topaketen data aldatzea erabaki dugu," adierazi dute antolatzaileek.

Gauzak honela, IV. Udaltop Topaketak martxoaren 22an eta 23an izango dira Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur-etxean. Antolatzaileek jakin arazi dutenez, hizlari guztiak hitz egin eta "egitarauak hasiera batean ez du aldaketarik izango, aurreikusitako bera izango da, baina aste bete aurreratu".

Era berean, matrikulazio epea zabalik dagoela eta martxoaren 16a izena emateko azken eguna dela gogora arazten dute.

## ELKARTASUNA

### Elkartasun azoka

Donostiako Santa Teresa ikastetxeak urtero legez, elkartasun azoka antolatu du martxoaren 1 eta 2an ikastetxean. Azokaren ordutegia goizean 9:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:00etara izango da.

Ikastetxeak jakin arazi digunez, aurten jasotako dirua bi proiektura bideratuko da: Manos Unidas elkarteak Sri Lankan egingo duen nesken umezurtegi baterako eta Enrique de Osso fundazioak duen nesken umezurtegi bat hornitzeko.





Herritar ugari hurbildu ziren Arantzazuko Ama birjinaren elizara Andaluzia Eguna ospatzeko egin zen meza aditzera.

## Andaluzia Eguna

### Andaluziarren egun handia ospatu zuten igandean

Jon ALTUNA EGITEGI

Andaluziarrentzat egun handia da otsailaren 28a, biharko eguna hain zuzen. Izan ere, Andaluziak erreferendum bidez 1980. urtean erabateko autonomia lortu zuela oroitu eta ospatzen baita egun horretan.

Herritarren kasuan, goizean meza santua, eguerdian Semblante Andaluz elkarte-bazkaria eta arratsaldean "Sentimiento" taldearen kon-

zertuarekin ospatu zuten.

#### Eguerdiko meza

Zumaburuko Arantzazuko Ama birjinaren elizan egin zuten ospatu zuten meza santua.

Zeremonia hasi aurretik, Abdon Fernandezek, Semblante Andaluz-eko presidentek, hitz batzuk esan zituen: "Gure egun handia ospatu daitekeen modurik onenean ari gara ospatzen. Gaur, anaitasuna eta maitasuna nagusi daitezten nahi dugu, Jainkoa-

ren laguntzaz".

#### Bazkari handia

Meza ostean, Semblante andaluz elkarte-bazkari handia antolatu zuten, zizkamizka iberikoak, legatza eta txuleta piperrekin izan zituzten menuan.

Bazkal ostean, Sentimiento taldearen kontzertua ikusteko aukera izan zen, pasodoble eta "sevillanak" abestu zituzten eta herritar batzuk dantzatzera ere ausartu ziren.



Mahai nagusian Abdon Fernandez presidentea eta Udaleko ordezkariak.



Andaluziako ereserkia zutik jarrita entzun zuten bazkaltzera joan zirenek.



Duendes Flamencos, Gitanillos del Alba eta Coro Semblante Rocierok abestu zuten mezan, arratsean, Sentimientok.



Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk herritarren algarak eragin zituzten.

## Asteburua kulturaz blai

Denetarik ekitaldi kulturalak izan zituzten aukeran berriro ere asteburuan Lasarte-Oriako herritarrek. Ostiral eta larunbatean, antzerkia, musika eta magia gozatzeko aukera izan baitzuten hainbat saioen bidez.

#### Bodologuak umoretsu

Menu kulturalaren lehen platera, Manuel Lekuona kultur etxean Bodologuak antzerkiaren emanaldia izan zen. Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk ikusleen barre algarak eragin zituzten ia bi ordu iraun zuen saioan.

Bakoitzak bi monologo osatu zituen eta gai ezberdinak erabili zituzten horretarako, hala nola, "soziedadeak", txakurrak, euskaldun izatearen zailtasunak, eliza... gai desberdinak ardatz hartuta, bakarriketa eta elkarriketa sorta polita utzi zuten.

Bakarriketa arteko trantsizioetan, hiru aktoreak aldi berean oholtzartzen ziren, eta euren pasarte xelebreek bizitasuna eman zioten umore ikuskitan polit eta biziari.

#### Wasabi projekt-en inprobisazioa

Ostiralean bertan, Wasabi Projekt taldeak Jalgi kafe antzokia funk eta jazz doinuez jantzi zuen.

Xpression! zirkuituaren barnean, otsailerako prestatuta dauden emanaldietan azken kontzertua izan zen ostiral gauekoa.

#### Sun Magoaren magia

Gaztetxoek ere izan zuten magia gozatzeko aukera. Sun Magoak ahoa bete hotz utzi zituen haur eta gurasoak larunbat arratsaldean kultur-etxean egindako saioan.



# Sorgin Jaien ibilbidea, finkatuta

- ▶ *Hausnarketa prozesua bukatutzat eman dute azken hilabeteotan egindako hiru bileren ostean*
- ▶ *Jai parte-hartzaile eta autogestionatu batzuk aurrera eramateko konpromisoa berretsi dute*

Sorgin Jaiek eztabaida eta hausnarketa prozesu bat abiatu zuten duela hilabete batzuk. Orain, eztabaida horren emaitzak plazartu dituzte lau puntutan banatuta: antolakuntza, herri mugimendua, aurrera begira jarritako helburuak eta Udalarekiko harremana aztertu dituzte bertan. Hori aurkezteko, ostiral ilunabarrean bideo emanaldi bat egin zuten Xirimirin eta bertan sorreratik gaur egunera arte Sorgin Jaien antolakuntzan aritu direnen iritzia bildu eta urtez urte gertatutakoa laburtzen zuen argazki galeria ikusi zituzten.



Hainbat gazte bildu ziren Xirimiri Elkartearen Sorgin Jaiek sorreratik gaur egunera arte izan duten bilakaera azaltzen duen bideo emankizuna ikusteko.

Jon ALTUNA EGITEGI

Gustura daude antolatzailak eztabaida prozesuak emandako emaitzarekin, adin tarte desberdineko jendea bildu eta koadrila askotako jendearen ekarpenak bildu baitituzte.

## Antolakuntza

Antolakuntzari dagokionean, eztabaida "oso sakona" izan da Sorgin Jaien arabera. Egitaraketa berrian, antolaketa modua "aldatzen" joango dela esan dute, eta aurtengo jaiak "trantsizio" moduan ulertu beharko direla.

Aurrerantzean, koadrila edo blusen inplikazioa garrantzitsuagoa izatea nahi dute, "Sorgin Jaiak-ekin identifikatu eta bertan parte hartu nahi duten jendarteak batu, identifikatu eta antolakuntza berriaren parte bilakatuz, protagonismoa herriari emateko asmoa dugu".

Bestalde, egitaraua "apal-

du" egingo dela aitortu duten arren, egingo diren ekintzak "gehiago koordinatu" eta "indartsuago" antolatzeko konpromisoa hartu dute.

## Herri mugimendua

Sorgin Jaiek bai gunea zein egitaraua irekiak dituzte edozein herri mugimenduentzako, gainera, bertan parte hartzerantz animatzen dituzte.

Aurten, orain arte bezala, txosna orokor bat egotearen ideiarekin jarraitzea erabaki dute, baina gunea "osatu" eta "proposamen berriak" gehitzeko prest daude herri eragileren batek hala nahi izatekotan.

## Helburuak

Helburu behinena, jaien protagonismoa koadrila eta blusei uztea izango da, Sorgin Jaiak herritar guztientzako erreferente bihurtzearekin batera.

Era berean, beste herri mugimendu, eragile eta elkarrekin harremanak lantzea eta

sakontzea dute xede Sorgin Jaiek hurrengo urteetarako.

## Udalarekiko harremana

Udalarekin batera egitaraua, gunea fisikoa eta koordinazioa adostu nahi badituzte ere, oraingoz behintzat ez da "eredu misto" baterako jauzirik emango. Beraz, Sorgin Jaiek orain arteko "alegaltasunean" jarraituko dute.

Bide batez, oraindik Udalarekin "harreman formalik" izan ez duten arren, halakorik egotekotan, entzuteko prest leudekela adierazi dute.

## Sorgin Jaien historia bideoz

Hausnarketa prozesua aurkezteaz gain, Sorgin Jaien historia ordu erdi pasatxoan biltzen duen bideoa ikusi zuten herriko gazteek ostiral arratsaldean Xirimiri Elkartearen.

Bertan, Sorgin Jaien hastapenetan gorputz eta arima lanean aritu ziren herritarren iritzia entzuteko aukera izan

zen, urtez urte gertatutakoa errepatatzen zuen argazki galeria bat ikustearekin batera.

Hasieran, Sorgin Jaiak "xumeak" eta baliabide "urrikoak" baziren ere, gaur egun herriko festetako erreferente nagusietako bat da. Bere garaian, herritarrek argi ikusi baitzuten jai herriko, alternatibo eta parte-hartzaile baten beharra egon bazegoela herrian.

## Oztopoak nonahi

Hala ere, bidean traba eta oztopoak izan zituztela aipatzen dute bertan parte-hartzen duten herritarrek bideoan.

Txosna gunek debekatean eta herrian horiek gabe hutsune handi bat geratu zenaren ustearekin, imaginazioa armatzen hartuta, "kamioi-rock, txosnamobila edota kiosko zaharreko txosna inprobisatua" bezalako ekimenak antolatu zituzten gazteek, herrian nolabaiteko

"tradizio alternatiboa" sortuz.

## Tentsio giroa

Bideoan azaltzen dutenez ordea, "tentsioa" izan ohi zen nagusi ekimen horien egitean, Ertzaintzak gertutik zaintzen baitzuten gazteen jardura.

Tirabira batzuen ostean eta egoerak horrela jarraitu ezin zuela ikusita, Udalarekin bildu nahi izan zuten gazteek. Negoziazioa "zail" baten ostean, anbulatorio aurreko gunea lortu zuten gazteek lehenik, eta bertan obrak hasi zuten gunea.

## Bilboko txosnak eredu

Sorgin Jaiek gunea lortzean, argi ikusi zuten festa indartsua antolatu beharra zegoela jendea erakartzeko.

"Zerbait egitekotan, goazen zerbait handia egitera", diote bideoan, eta hori lortzeko Bilboko konpartsen txosnak eredu-tzat hartu zituztela esaten dute.

## Elkarretaratze berezia

Hileko azken ostiralero bezala, Etxeratak deituta elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek udaletxe aurrean.

Bestalde, Lasarte-Orian ere, Euskal Herri osoan zehar bezalaxe Herrira plataforma sortu da, euskal preso eta iheslarien etxeratzea helburu duen ekimena hain zuzen.

Aurrerantzean, Herrirarena izango da hileko azken ostiralero elkarretaratzearen ardura hartuko duena, Etxe-

rat-ek, bere aldetik ekintzak eginen jarraituko duen arren.

## Argi eta Iñakiren urtemuga

Bihar beteko da Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi, Juan-ka Balerdi presoaren ama eta anaia Almeriarako kartzelara bidean auto istripuz hil zirela. Biak gogoan eduki nahi izan zituzten ostiraleko elkarretaratzearen euren argazki bana erakutsiz. Horiez gain, ohiko modura herriko beste presoak ere izan zituzten gogoan.



Bi irudi handirekin oroitu nahi izan zituzten Argi eta Iñaki udaletxe aurrean bildu ziren herritarrek.



## SQUASHA.-



## Squash txapelketarako izena ematea ireki da

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak beste urte batez Squash txapelketa soziala antolatu du. Hogeita laugarren edizioa izango da aurten.

Udal Zerbitzuek aurreratu dutenez, lehia 2012ko martxoaren 19an hasiko da eta Kiroldegiko squash pistetan norgehiagoka desberdinak ikusi ahaliko dira ekainera arte.

Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko adina 14 urte dela gogora arazten dute Udal Zerbitzuko arduradunek.

### Izena ematea

Parte hartzeko asmoa duten herritarrek martxoaren 9ra arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko.

Inskripzioarekin batera Buruntzaldeako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

## OHARRAK.-

### Buruntz Azpik ehiza txapelketa atzeratu du

Buruntz-Azpi elkarteko ehiza txapelketaren data aldatu da. Elkartek jakin arazi digunez, martxoaren 11an, igandean izango da lehiaketa Buruntza mendiko magaletan.

Zakurrekin egiten den ehiza txikiko lehiaketa txapelketa da eta elkarteko bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren martxoaren 8a ostegunera bitartean.

### Helduentzako igeriketa ikastaroa martxoan

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuek martxoan zehar eskainiko dituen helduentzako igeriketa ikastaroen izena ematea ireki du.

Ikastaroa martxoaren 5ean hasiko litzateke. Astean 5 saio izango lirateke asteleheneetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 11:00etara.

Izena emateko azken eguna martxoaren 1a, osteguna da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 376 182 zenbakira deitu behar da.

### Aktibazio muskularrari buruzko hitzaldia

Gorka Ipinza entrenatzaile pertsonalak "Aktibazio muskularra eta entrenamendua" hitzaldia eskainiko du, otsailaren 29ean, asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan Aktibazio Muskularra Training enpresaren egoitzan, Blas de Lezo 2 behean.

Hitzaldira joateko interesa edo gaiari buruz gehiago jakin nahi duten herritarrek, 607 797 205 telefono zenbakira ere deitu dezakete.

### Aste Santuan kirola eta jokoak

Lehen urtez Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak Aste Santuan kirol eta joko ekintzak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Apirilaren 2tik 13ra kirol eta jolas desberdinak egingo dituzte, 9:30ak 12:30ak bitartean. Buruntzaldeako ibilbideetan zehar ere irteera bat egingo dute.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute. Izena ematea martxoaren 5ean irekiko da. Matrikula egin edo informazio gehiago eskuratzeko kiroldegiko bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

## IGERIKETA.-

## Ibarburu Euskadiko txapeldun

Buruntzaldea IKT-ko gazteek lan ona egin zuten Neguko Euskadiko txapelketan eta Kirol zehaztasuneko jardunaldian

**Buruntzaldea IKTko gazteek ez dute atse-denik, otsailaren 18 eta 19an, infantilen mailako Euskadiko Neguko txapelketa eta Kirol Zehaztasuneko bigarren jardunaldian lehiatu ziren. Emaitza onak lortu zituzten bietan eta taldeak Euskadiko txapeldun berria du, Iñigo Ibarburu.**

### Nerea EIZAGIRRE

**B**uruntzaldea IKTko Naiara Lizaso, Mikel Soto, Iñigo Ibarburu eta Jone Vazquez izan ziren, lehengo asteburuan, Galdakaon izan zen infantil mailako Neguko Euskadiko txapelketan.

Eta lauen artean, Iñigo Ibarbururen txapelketa azpimarratzekoa izan zen.

Urrezko domina eskuratu zuen 100 m. tximeleta proban eta txapeldun orde izan zen 100 m. libre eta 200 m. bizkar probetan.

Gainera, nahiz eta irteera txarra egin, azken proba honetan bere marka hautsi eta Espainiako gutxieneko marka egin zuen berriro ere.

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak azaldu digunez, "irteera seinalearekin arazo bat egon zen bere kalean eta Iñigo besteak baino segundubat geroago atera zen. Ondo irten balitz lehenengo postuan izateko moduan izango zen".

Era berean, Jone Vazquez 200 m. libre eta 400 m. libre probetan lehiatu zen eta bietan bere marka pertsonala hobetu zuen.

Naiara Lizaso eta Mikel Sotori dagokionez, txapelketa honetan parte hartzen zuten lehengo aldia zela aipatu du Borja Speztegia entrenatzaileak.

Gauzak honela, Naiarak 100 m. libre, 100 m. tximeleta eta 50 m. libre probetan bere markak hobetu zituen eta laugarren izan zen bi probetan; Mikel Sotok berriz, horrelako lehiaketa batean egon izanaren esperientzia irabazi zuen.

Borja Apeztegia entrenatzailearen hitzetan, "lauek amaiera ona eman diote Neguko denboraldiari".



Iñigo Ibarburu gaztea Euskadiko txapelketan lortutako dominekin. BURUNTZALDEA IKT

### Kirol Zehaztasuna

Bestalde, taldeko txikienek, benjamin eta alebinek kirol Zehaztasuneko bigarren jardunaldia izan zuten Hernaniko igerilekuan.

"Gure igerilari gaztetxoak bikain ibili ziren egindako proba guztietan," adierazi du Apeztegiak eta horren erakusle markak hobetzea lortu zutela da.

Txapelketa honetan azpimarragarria da entrenatzailearen ustetan, 2002an jaiotako Irati Arzallusek 100 m. libreetan lortutako taldeko errekor berrria.

Honetaz gain, 2003an jaiotakoen artean, 50 m. libre proban nesketan Leire Martin hirugarren izan zen eta mutiletan azkarrena Unai Somovilla izan zen.

Proba berdina egin zuten 2002an jaiotakoek ereeta honetan Lander Azkaratek bigarren postuan amaitu zuen eta Nerea Garcia hirugarrenean.

Hamar eta hamaika urte artekoen mailatan, 50 m. bizkar proba eta 200 m. libre probak egin zituzten, 2000 urteko neskak izan ezik.

Nesketan hamar urteko Nahia Jie Villamediana izan zen bi probatan irabazlea.

Mutiletan, berriz, 2000. urtekoen artean bi probatan azkarrena Beñat Alkorta izan zen. Gaztetxoetan, berriz Ibon Etxarri izan bizkar pro-

ban azkarrena eta Jon Soto proba librean.

Hamaika urteko neskek, 100 m. bizkar eta 200 m. libre probak egin zituzten. Bietan azkarrena Ainara Garcia izan zen eta Buruntzalde IK-ko entrenatzaileak azaldu digunez, oso gertu ibili ziren Maialen Casado eta Janire Berasarte.

1999. urtean jaiotako mutilek ere proba horiek egin zituzten eta 100 m. bizkar proban Iñaki Etxebestek bere marka hobetu zuen.

### Erreleboak

Kirol Zehaztasuneko jardunaldi honetan bi erreleboetako proba egon zen. 2002 eta 2003. urteko gaztetxoek 6x254 m. bizkar erreleboa izan zuten eta "lan txukuna" eginaz, 12. postuan amaitu zuten.

Bestetik, taldeko alebinek 2000 eta 2001. urtekoan jaiotako gaztetxoek 4x50 m. tximeleta proba izan zuten. Buruntzalde IKT-k bi talde aurkeztu zituen bata neskena eta bestea mutilena.

Nesken taldea Janire Berasarte, Maialen Casado, Ainara Garcia eta Nahia Jie villamedianak osatua izan zen eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Mutil taldean, berriz, Jon soto, Argoitz Tardio, Beñat Alkorta eta Ibon Etxarri lehiatu ziren eta 14. postuan amaitu zuten.



## Agenda

Astelehena 27, Manuel Lekuona, 19:00etan



### Ur azpiko zinema zikloa gaur amaitzen da

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren azken saioa izango da gaur. Honetan "Jatay Espedizioa" eta "Lembeth, majiko eta liluragarria" filmak eskainiko dira honetan. Hauetan marrazo zuriaren bila egindako bidaia edo Indonesiako Sulawesi irlaren iparraldera grabatutako espezie aniztasuna ikusi ahalko dira. Zikloa Udalaren eta REal Sociedad taldeko urazpiko atalern laguntzaz eskaini du elkarteak. Gaztelaniaz. Doan.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Asteartea 28, 19:30ean**

Ekologistak martxanek antolatzen duen 6. Ekozinemaldiko "Oro o la vida" eta "LA MAT . A dónde nos lleva el progreso" filmak ikusgai izango dira.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Asteazkena 29, 19:30ean**

Ekologistak martxanek antolatzen duen 6. Ekozinemaldiko "The pipe", "Palm off" eta "Abuela grillo" filmak ikusgai izango dira.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Igandea 4, 17:00etan**

Haurrentzako zinearen barruan, "Malu-

tatxo" animaziozko filma ikusgai izango da. Euskaraz. Sarrera, 3,40 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Osteguna 8, 21:30ean**

Okendo zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Igandea 11, 17:00etan**

Haurrentzako zinearen barruan, "El gato con botas" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Igandea 11, 19:00etan**

Okendo zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da helduentzako zinema atalean. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,40 euro.

## Musika

**AMA BRIGITARREN KOMENTUA**

**Ostirala 2, 19:30ean**

Rosat eta Ruti hirukotearen musika klasiko emanaldia, Danok Kide elkartearen VII. Musika Topaketen barruan.

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Larunbata 3, 23:00etan**

Igelaren banda taldearen jazz eta folk doinuak entzuteko aukera paregabea.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Larunbata 10, 19:00etan**

Haren Alde Gobernu Kanpoko Era-kundeak antolatutako musika emanaldia. Sarrera, 6 euro.

**SIGLO 20**

**Larunbata 10, 20:00etan**

Zepequeño&Pelayo hip hop Live! tal-

dearen hip hop emanaldia.

**Larunbata 10, 23:00etan**

DJ KA eta DJ SET-en saioak entzun eta dantzatzeko ukera.

## Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN**

**Ostirala 9, 19:30ean**

Nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko, Lan eta Lan Beti Lan taldeko kideek "Las siete vidas del gato" antzezlan eskainiko dute. Gaztelaniaz.

## Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Otsailaren bigarren hamabostaldian**

Rudy artistaren margoen erakusketa ikusgai izango da.

## Bestelakoak

**GOIEGIKO PARKEA**

**Asteartea 28, 9:30ean**

Ikastetxeek Zuhaitzaren eguna ospatu-ko dute.

**VILLA MIRENTXU**

**Asteartea 28, 19:00etan**

Herrira ekimenaren aurkezpena.

**GOIEGIKO PARKEA**

**Asteazkena 29, 9:30ean**

Herritarrek Zuhaitzaren eguna ospatu-ko dute.

**EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA**

**Osteguna 1, 18:00etan**

AGIPASE elkarteak eskaintzen duen "Berdintasunean hezteak zer dakarkit eta nola egin dezaket" tailerraren bigarren saioa egingo da.

## Herritarren txokoa

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, otsailaren 27an, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzte, odola ordezkazean da eta odol falta dago!

### Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, urrezko pultsera, urrezko belarritakoa, neskaren esku-muturreko bat, hiru betaurreko graduatu, bizikleta bat, bi telefono mugikor eta zamarra beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Iradokizunak edo kexak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizunak, kexak edo eskaerak egiteko orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

### Hirigintzako departamentua Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.



### Lapurrak Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako bizilagun batek gure herrian lapurrak dabiltzala ohartzeko eskatu digu. Izan ere, gure herrian adineko pertsoan asko dago bakarrik bizitzen.

Bidali digun testuan osteguna arratsaldean bere gurasoen etxean jazotakoa azaldu digu.

Herritarra egunero doa bere gurasoak, 81 eta 76 urte dituzte, lagundu edo bisitatzen.

Dirudienez, ostegunean, bertan zela, tinbrea jo zuten. Bi gizonetako ziren bata bestea baino gazteagoa.

Herritarrek ez zuten susmo ona izan eta atea pixkat bat ireki zuten. Orduan, gizonetako batek besoa sartu nahi izan zuen, baina atea ixtea lortu zuten herritarrek eta

larrialdietara deitu zuten.

Gizonak ohiuka hasi ziren Polizia judizialak zirela. Kalera atera ziren eta bertan ere ohiuka jarraitu zuten.

Herritarrek azaldu digunez, etxe aurreko lokaleko langileek ikusi zituzten, baina Ertzaintza iritsi zenerako ez zegoen haien arrastorik.

Ertzaintzak azaldu dienez, talde honek modu errazean lapurtuak izan daitezkeen pertsonak aukeratu eta etxeko kideen jarraipena egiten dute.

Azkenik, udaltzainek pertsona adinduak ohartarazi nahi izan dituzte, etxera joatean adi egoteko eta edozeini ez irekitzeko eskaria eginenez. Gainera, pentsioa hartzen joatean ere kontuz ibiltzeko deia egin dute, gisa honetako ezbeharrak sahiesteko asmoz.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Oscar Garrido Judoka

# “Espainiako kopan domina lortzeko aukerak ditut”

- Kadete mailako judoko Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan garaile izan da
- Lortutako garaipenengatik selekzioaren deialdia jaso du Lasarte-Oriako gazteak

**Aurreko Txintxarrin argitaratu genuen bezala, LOKEko judokak txapelketaz txapelketa ibili dira eta hainbat domina eta txapeldun titulu gehitu dituzte aurten taldeko sari kopurura. Horien artean, Oscar Garrido gaztetxo du. Aurten igo da kadete mailara eta judon Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izan da. Gainera, Espainiako kopan ere lehiatzen ari da eta domina eskuratzeko aukera handiak ditu.**

Nerea EIZAGIRRE

Oscar Garrido gazteak lau urte daramatza judoan LOKE taldean. Hamaika txapelketetan lehiatu da, baina aurten bere urtea da. Nahiz eta aurten kadete mailara igo, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak eskuratu ditu 90 kilo azpiko mailan eta Espainiako kopan hirugarren doa. Espainiako selekzioarako deialdia ere izan du. Lasarte-Oriako gaztearekin bildu gara berari buruz gehiago jakiteko.

**Zergatik hasi zinen judoan?**

Etxean aita eta nire anaiak, Mariok judoa egiten dute.

Egun batean nire anaiak esan zidan gustatuko zitzaidala eta probatzeko.

Kiroldegira etorri nintzen eta gustatu zitzaidan. Geroztik lau urte daramatzat.

**Eta aurten kadete mailara igo zara. Aldaketa handia izan al da?**

Zaila da. Normalean, arerioek nik baino urte bat gehiago dute eta ni baino indartsuagoak dira.

**Nahiz eta horrela izan, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelduna zara...**

Nire mailan eta pisuan lehiatzen den aurkari asko eza da go Euskadin.

Egia da dauden judokak maila handikoak direla, baina hemendik ateratzen zarenean. Izan ere, judoka gehiago dago eta maila ere altuagoa da. Aldaketa handia da.

**Hainbat txapelketatan lehiatu zara aurten, ezta?**

Aurten Frantzian egon naiz lehiatzen. Horretaz gain, bigarren noa Espainiako kadete kopan. Murtziako eta Hondarribiko jardunaldietan bigarren izan nintzen eta hirugarren Iruñean.

**Nola ikusten duzu, beraz, Espainiako kopa?**

Espainiako kopan zaila egongo da, baina irabazteko aukerak daudela uste dut edo domina lortzekoa behintzat.

**Judoko Espainiako txapelketarako sailkatu zinen eta selekzioa kide zara, ezta?**

Bai horrela da, Espainiako txapelketarako sailkatu nintzen Euskadiko txapelketa irabaztean. Caceresen izango da aurten.

Eta Espainiako kopan lortutako postuengatik selekzioarako deitu zidaten.

**Zein izango da zure hurrengo lehiaketa?**

Hurrengo txapelketa martxoaren 3 edo 4an dut, Madrilgo hiria saria. Espainiako kopako probetako bat da.

Italia, Frantzia eta leku askotatik joango dira judokak. Honetan domina lortzea espero dut. Gainera, horrela bada, Espainiako selekzioan jarraituko nuke.

**Zein da selekzioarekin duzun hurrengo ekintza.**

Asteburu honetan Madrilera noa, Espainiako selekzioak proba fisikoak egiten baititu gure errendimendu maila nolakoa den ikusteko.

Eta hurrengo topaketa, Uste dut Fuengirolan egongo dela, baina ez nago ziur.

**Horretarako, zenbat egunetan entrenatzen zara?**

Egunero entrenatzen dut. Astelehena, asteazkena eta ostiraletan Lasarte-Orian eta astearte eta ostegunetan Hondarribian, Amagualupekoa taldeko kideekin.

**Eta desberdintasunik al dago entrenamenduetan?**

Nire ustez, Hondarribin entrenamenduak gogorragoak direla.

**Eta haiekin ere bidaiak egin dituzu, ezta?**

Bai. Normalean, bidaietara klubarekin goaz, baina klubeko inor ez badao, Hondarribi-

koekin noa. Frantziara, esate baterako haiekin joan nintzen.

**Zer nahiago duzu gehiago entrenamendua edo borroka? Lehiaketako judoa gustatzen zait.**

Gehiago ikasten da eta esperientzia hartzen duzu. Atakeak gehiago sentitzen dituzu. Entrenamenduetan

gauza bera egin dezakezu, baina ez da berdina.

**Orain gerriko marroia duzu. Noizko beltza?**

Agian aurten aurkezten naiz gerriko beltzeko azterketetara, baina ez nago ziur hainbeste lehiaketa ditut ez dakidala denbora emango didan presatzeko. Beraz, agian hurrengo urtean izan beharko du.

**Judoaz gain, sanbo eta borroka ere egiten dituzu, ezta?**

Bi horrela da, gehienek egiten ditugu.

**Zeintzuk dira bi modalitate horietan hurrengo erronkak?**

Sanboko txapelketa eta judoak egun berean dira eta ezingo naiz joan. Baina borrokan Espainiako txapelketara joango naiz.



Oscar Garrido judoka denboraldi ona egiten ari da. Nazioartean ere gogor lehiatu da. Horren adibide da Frantziako lehiaketan lortu zuen zilarrezko domina. Argazkian, harekin batera, Fermin Balda eta bere aita. G. ARISTEGI



**Aitak eta nire anaiak, Mariok judoa egiten dute. Egun batean nire anaiak esan zidan gustatuko zitzaidala eta probatzeko. Kiroldegira etorri nintzen eta lau urte daramatzat**